



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abuztuaren 25a

71. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako. 7. oinarria eta III eranskina aldatzea ([6. or.](#))

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (2. or.).
- III. Iritzia (3. or.).
  - III.1. 2007ko aurrekontuaren betetze mailari-buruz. (3. or.).
  - III.2. Ondare-egoera (3. or.).
  - III.3. Legezketasuna (3. or.).
- IV. Finantzen egoera-orriak (4. or.).
  - IV.1. 2007ko ekitaldikoa aurrekontuaren likidazioa. (4. or.).
  - IV.2. Egoeraren balantzea 2007ko abenduaren 31n (5. or.).
  - IV.3. Emaizten kontua eta emaitzen banaketa (6. or.).

### **I. SARRERA**

Nafarroako Kontseilua martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bitartez sortu zen; lege hori abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legearen eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez aldatu zen. Nafarroako Kontseiluak 2000. urtean ekin zion bere jardunari.

2005ean, Nafarroako Kontseiluak bere aurrekontua eta kontuak modu independentean aurkeztu zituen, bere kontabilitatearekin.

2007ko plantilla organikoan bi langile daude: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan, eta idazkari bat, aldi baterako kontratuarekin.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori langileria gastu eta dirusarrera arrunt gisa kontabilizatzen du bere aurrekontuan.

Aurrekontuak 589.417 euro egiten du. Gastuen betetzea 294.313 eurokoa da eta dirusarrerena, berriz, 487.829 eurokoa. Gastuen eta dirusarreraren betetze-mailak ehuneko 50 eta ehuneko 83 dira, hurrenez hurren.

2007ko ekitaldiaren exekuzioaren emaitza gisa, superabit bat sortu zen, eta Foru Ogasunari 193.517 euro itzuli zitzaizkion.

Nafarroako Kontseiluak, kontsulta eginkizunak betez, 40 irizpen eman ditu ekitaldian, eta 17 bilkura egin.

Azterketa-lana 2008ko apirilean egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Nafarroako Kontseiluko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

### **II. HELBURUA ETA NORAINOKOA**

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2007ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena sartu zen 2008ko jarduketa programan.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Egiaztatzea Nafarroako Kontseiluen gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzeak 2007ko ekitaldian egindako eragiketarak behar bezala islatzen ote dituen.

- 2. helburua. Egiaztatzea aurkezturiko finantzen egoera-orriek modu egokian islatzen ote duten zein den 2007ko abenduaren 31ko ondare-egoera, baita eragiketen emaitzak ere.

- 3. helburua. Egiaztatzea fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezatasun printzipioa bete ote den.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko sektore publikoko auditoriako printzipioei eta araei jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu. Lanean, halaber, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu, inguruabarren arabera.

### III. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2007ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak eta egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira,

eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu horien egoera.

Eginiko azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

#### III.1. 2007ko AURREKONTUAREN BETETZE MAILARI-BURUZ.

2007ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala islatzen du ekitaldi horretan egindako jarduera.

#### III.2. ONDARE-EGOERA

Egoera-balantzeak eta emaitzen kontuak nahiko ongi agertzen dute finantza eta ondare-egoera 2007ko abenduaren 31n.

#### III.3. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2007ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera legezatasun-printzipioaren arabera izan da.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**IV. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK****IV.1. 2007ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.**

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Betebehar aitortuak	Ordaindutakoa
1. Langile gastuak	181.304,00	181.304,00	122.194,89	122.194,89
2. Ondasun aruntak eta	365.613,00	365.613,00	172.118,01	172.118,01
6. Inbertsio errealak	42.500,00	42.500,00	00,00	00,00
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>589.417,00</b>	<b>589.417,00</b>	<b>294.312,90</b>	<b>294.312,90</b>

**Dirusarreraren kapitulu ekonomikoen arabera**

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Eskubide aitortuak	Kobratutak oa
4. Transferentzia aruntak	546.917,00	546.917,00	487.807,89	487.807,89
5. Ondare-dirusarrerak	0,00	0,00	21,45	21,45
7. Kapital-transferentziak	42.500,00	42.500,00	00,00	00,00
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>589.417,00</b>	<b>589.417,00</b>	<b>487.829,34</b>	<b>487.829,34</b>

**IV.2. EGOERAREN BALANTZEA 2007ko ABENDUAREN 31n**

Kontzeptua	2006	2007
<b>IBILGETUA</b>	<b>67.696,36</b>	<b>67.696,36</b>
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>58.610,60</b>	<b>58.610,60</b>
Altzariak eta tresneria	14.131,72	14.131,72
Informazioa prozesatzeko tresneria	17.579,68	17.579,68
Irudi korporatiboa	5.590,00	5.590,00
Bestelako ibilgetu materiala	21.309,20	21.309,20
<b>IBILGETU EZ-MATERIALA</b>	<b>9.085,76</b>	<b>9.085,76</b>
Aplikazio informatikoak	9.085,76	9.085,76
<b>AKTIBO IBILKORRA</b>	<b>188.797,94</b>	<b>193.516,44</b>
<b>DIRUZAINZA</b>	<b>188.797,94</b>	<b>193.516,44</b>
Bankuak eta kreditu-erakundeak	188.797,94	193.516,44
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>256.494,30</b>	<b>261.212,80</b>

**PASIBOA**

Kontzeptua	2006	2007
<b>FUNTS BEREKIAK</b>	<b>67.696,36</b>	<b>67.696,36</b>
Ondarea	67.696,36	67.696,36
<b>EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK.</b>	<b>188.797,94</b>	<b>193.516,44</b>
Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu itzulketa dela eta	188.797,89	193.516,44
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>256.494,30</b>	<b>261.212,80</b>

## IV.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

ZOR		HARTZEKO	
122.194,89	Langile-gastuak	Finantza dirusamerak	21,45
172.118,01	Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak	487.807,89
		Kapital-transferentziak	0,00
193.516,44	<b>Aurrezkia (emaitza positiboa)</b>		
<b>487.829,34</b>	<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>487.829,34</b>

## Emitza doitua

ZOR		HARTZEKO	
	Ekonomia eta ondare emaitza	Ondarea (inbertsio garbi aktibatuak)	0,00
		<b>Emitza ekonomiko eta ondareko doitua</b>	<b>193.516,44</b>
	<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>193.516,44</b>

## 2007ko ekitaldiko emaitzen banaketa

ZOR		HARTZEKO	
	Emitza ekonomiko eta ondareko doitua	Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna	193.516,44
	<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>193.516,44</b>

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako.**

### **7. oinarria eta III eranskina aldatzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abuztuaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuan administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesuaren deialdian (53. NPAO, 2008ko ekainaren 6koa) ezarritako mekanografia-proba egitea erraztearren, eta horrela zenbait eragozpen saihesteko, lotura daukatenak idazmakina mekanikoak erabiltzearekin, horrelako makinaren erabilera gero eta urriagoarekin eta izangaietako bakoitzak berea ekartzeak bitarteko materialetan eragindako berdintasunik ezarekin, honakoa ERABAKI DA:

**1.-** Deialdiko 7.1.B.b oinarrian eta III. eranskinean ezarritako idazmakina mekanikoen bitartezko mekanografia-proba egiteko modua aldatzea, halako moldez non proba horren ordez beste bat eginen den, antzeko helburua duena baina bitarteko informatiko eta automatizatuak erabiltzen dituen, eta beraz hobetu egiten dituen proba egiteko baldintza materialak eta izangai guztien berdintasuna ziurtatzekoak. Deialdiko 7.1.B.b oinarri berriaren eta III. eranskin berriaren jasoko da proba hori.

Halaber, berrantolatuko egiten da probak egiteko modua, ezagutza-probak eta praktikoak bilduz.

**2.-** Onetsitako aldaketak aplikatzea, halako moldez non 7. oinarriaren eta III. eranskinaren testuak honakoak izanen baitira:

**"7. oinarria.** Probak noiz hasi eta nola eginen diren.

1. Merezimenduen kalifikazioaren emaitzak jakinarazteko erabakian berean jakinaraziko da –hiru egun baliodun lehenago, gutxienez ere– lehen ariketa zein egun, ordu eta tokitan eginen den.

Izangaiak Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute probetara.

Hona hautaprobak:

A) - Lehen ariketa:

Bi zati izanen ditu, bata bestearen ondotik egiten direnak:

a) Ezagutzari buruzko proba.

Zenbait galdera erantzun beharko dira idatziz, honakoen ezagutza baloratzeko: Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta Nafarroako Parlamentuko administrazio-ko antolamenduari buruzko Erregelamendua.

Iraupena: 60 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 15 puntu

b) Ortografiako proba.

Epaimahaiak prestatutako ortografiako proba bat –diktaketa nahiz galdetegi bidez egin ahalko dena– ebatzi beharko da.

Iraupena: 15 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 10 puntu

B). - Bigarren ariketa:

Bi zati izanen ditu, bata bestearen ondotik egiten direnak:

a) Proba praktiko bat izanen da, Nafarroako Parlamentuan administrari lanean ohikoa den informatikaren inguruko funtsezko ezagutzei buruzkoa: hardwarea, softwarea (Word, Access eta Excel) eta Windows sistema eragilea, bai eta Internet (Explorer) eta posta elektronikoa ere (Outlook).

Iraupena: 60 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 30 puntu.

b) Trebetasun mekanografikoa neurtzeko proba praktikoak. Epaimahaiak testu baten kopia eman eta izangaiak ordenagailu-teklatuaren bidez transkribatu beharko dute, 10 minutuz gehienez ere. Sakatze kopurua baloratuko da, bai eta horien zuzentasuna ere, eta idatzitakoa zenbateraino datorren bat epaimahaiak proposatutako testuarekin. Akats mekanografikoak ez ezik, ariketako arauak ez betetzea ere zigortuko da.

Ariketa zuzentzeko, programa automatiko bat erabiliko da; programa horren bidez, epaimahaiak emandako testua eta izangaiak transkribatutakoa karakterez karaktere erkatuko dira.

Proba III. eranskinean ezarritakoari jarraikiz eginen da.

Iraupena: 10 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 10 puntu".

### "III. ERANSKINA

#### TREBETASUN MEKANOGRAFIKOA NEURTZE-KO PROBA

Epaimahaiak proposatutako testu bat transkribatu beharko da, izangaiak ordenagailuko teklatuan nolako abiadura eta eraginkortasuna duten baloratzeko; horretarako, testu editore erraz bat erabiliko da, ordenagailu pertsonal batean. Sakatze kopurua baloratuko da, bai eta horien zuzentasuna ere, eta idatzitakoa zenbateraino datorren bat epaimahaiak proposatutako testuarekin. Akats mekanografikoak ez ezik, ariketako arauak ez betetzea ere zigortuko da.

Probarako hau egiteko gehienez ere 10 minutu izanen dira.

Probarako beharrezkoak diren baliabide teknikoak emanen zaizkie izangaiari.

Epaimahaiak adieraziko du proba zein toki, egun eta orduetan eginen den; proba taldeka edo denak batera bilduta egiten ahalko da, probaren antolamendu egokiena zein den ikusita. Izangai kopurua dela-eta ordu desberdinetarako deituko diren taldeetan banatuta egin behar bada proba, epaimahaiak testu desberdinak baina antzeko zailtasunekoak prestatuko ditu; talde bakoitzak proba hori testu desberdin batekin egiteko behar beste, hain zuzen ere. Testua zozketa bidez esleituko da.

Epaimahaiak proba egiteko beharrezkoa iruditzen zaion laguntza tekniko eska dezake.

Proba 0tik 10 puntura bitarte kalifikatuko da. Baztertu eginen dira gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten izangaiak eta, betiere, laurogei akats mekanografiko edo gehiago egiten dituztenak.

Probaren balorazioa irizpide hauei jarraikiz egiten da:

Akats mekanografikoengatik izandako zehapenak kenduta, egindako lehenengo 2.500 sakatzerengatik 5 puntu emanen dira. Hortik gora, beste 120 sakatze zuzeneko, beste puntu bat gehituko da, edo proportzionalki dagokion puntuazioa.

Bi puntuazio horien batura, gehienez ere, probaren gehieneko puntuazioa izanen da; hots, 10 puntu.

Sakatzeen zenbaketan, sakatze arruntez gain honako hauek hartuko dira kontuan:

Lerroalde-aldaketa bakoitzarengatik, sakatze bat.

Letra larri bakoitzarengatik edo letra larrien tekla sakatzea eskatzen duen zeinu bakoitzarengatik, sakatze bat.

Azentu bakoitzarengatik, sakatze bat.

Eta sakatze zuzenetatik bost sakatze kenduko dira akats mekanografiko bakoitzarengatik. Hauek hartuko dira akastzat:

– Ondokoak sartzea:

Karaktere alfanumerikoak, zuriuneak, edo puntuazio zeinuak, transkribatu beharreko testuan ez daudenak. Halako kasu bakoitzeko, 5 sakatze kenduko dira zigor gisa.

– Ondokoak ez egitea:

Karaktere alfanumerikoak (letrak ez idaztea, azentudunak izan ala ez), puntuazio zeinuak (horietan sartzen dira puntu eta bereiz guztiak edo lerroalde arteko bereizketak), edo hitzen arteko bereizketa-espazioak: Halako kasu bakoitzeko 5 sakatze kenduko dira zigor gisa

– Nahasteak:

Karaktere alfanumerikoen, puntuazio zeinuen edo elkarren segidako bi karaktereren okerreko transkripzioa, horrek karaktere alfanumeriko bat beste batez ordeztzea ekartzen duenean. Halako kasu bakoitzeko, 5 sakatze kenduko dira zigor gisa.

Ariketa zuzentzeko, programa automatiko bat erabiliko da; programa horren bidez, epaimahaiak emandako testua eta izangaiak transkribatutakoa karakterez karaktere erkatuko dira.

Parte-hartzaileei espresuki ohartaraziko zaie ezen, behin probari hasiera emanez gero, ez dela inolaz ere etenen".

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta izangaiari jakinaraztea, posta elektronikoz, telefonoz eta Parlamentuko webgunearen bidez.

**4.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea zer aldaketa egin den deialdian, halako moduz non, hasieran 7.1B.b) oinarrian mekanografia-proba egiteko ezarrita zegoen moduagatik hautaketa-prozesu honetan parte ez hartzea erabaki zuen interesdunik baldin badago, igor dadin Parlamentura hautaketa-prozesu honetan parte hartuko duten izangaien zerrenda osagarria.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 8an.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	